

# Gazteak eta telefonoa

Telefonoa ezinbesteko osagai bihurtu da gure egunerokoan. Jende asko estu eta larri ibiliko litzateke, tramankulu hori une oro eskura izan ezean. Sekuentzia honetan, telefonoa izango dugu hizpide. Telefonoa nola erabiltzen dugun aztertuko dugu. Gaiaren inguruko iritzia emateko aukera izango duzu. Has gaitezen, bada!

- 1) Galderei erantzun eta hiztegia landu.
- 2) Entzungaia entzun eta ulermen galderei erantzun.
- 3) Telefonoak jotzean nola jokutzen dugun adierazi.



Argazkia: Pxhere

## 1. Zertarako erabiltzen duzu telefonoa?

Talde txikitara jarrita, erantzun galderei.



- Zertarako erabili ohi duzu eskuko telefonoa?
- Gai zara egun oso batez sakelakorik gabe egoteko?

Telefonoa ordenagailu txiki bat da niretzat. Gauza mordoak egiteko baliatzen dut

Nekez igaroko nuke egun bat telefonorik gabe. Ondo-ondoan izaten dut beti.



Azpiko egitura hauek ezagunak egiten zaizkizu? Zein da, zure ustez, gaiarekin duten lotura?

Aukeratu pare bat eta adierazi ikaskide bati gaiarekin nola lotzen dituzun.



***ezinegona sortu***

***arriskutsua izan***

***mutu geratu***

***antsietatea sortu***

***larritu***

***hartu-eman***

***deseroso sentitu***

***millenniala izan***

***sare sozialetan ibili/ aritu***

***ahots-mezua jaso/bidali***



Argazkia: Bicanski (Pixnio)

Nik **millenniala izatea** eta telefonoarekin ongi moldatzea lotzen ditut; belaunaldi horretakoak oso abilak dira teknologia berriekin.

Ba nik **ezinegona sortzea** ere lotzen dute telefonoarekin, izan ere, sakelakoaren bateria agortzen ari direla ikusiz gero, ezinegona sortzen zait.

## 2. Adi entzungaiari



Entzun telefono deien eta gazteen inguruko irratî-pasartea eta erantzun galderei. Nahi izatera, audioa entzun aurretik irakurri galderak, eta beharrezkoa bada bi aldiz entzun pasartea.



<https://labur.eus/5Yhzh>



Argazkia: Pixabay



1- Zergatik deitzen diote "mutuen belaunaldia" gaztetxoek taldeari?

.....

2- Zergatik ez dute gustuko Millennialak telefono deiak jasotzea?

.....

3- Zer dio Enric Soler irakasleak gazteen telefono-ohiturei buruz?

.....

4- Onintza Enbeitaren iritziz, nola jokutzen dute bere ingurukoek deitzen dietenean?

.....

5- Zergatik du gogoko WhatsAppa Arantxa Urretabizkaiak?

.....

6- Zer dela eta sentitzen du antsietatea zenbait gaztek telefono dei bat egin aurretik?

.....



Alderatu zure erantzunak ikaskide batekin.

### 3. Eta zuk, telefonorik hartzen duzu?



Talde txikitan jarrita, norberaren jokamoldea zein den azaldu. Beti hartzen duzu telefonoa? Zeren arabera erabakitzen duzu hartu ala ez?

Jarraian duzuen banaketa erabil dezakezue lagungarri bazaizue:

UNE DESEGOKIA BADA...	UNE EGOKIA BADA...
<input type="checkbox"/> Ez dut hartzen. <input type="checkbox"/> Nahiz eta une desegokia izan, hartzen saiatzen naiz. <input type="checkbox"/> Dei garrantzitsu bat denean bakarrik hartzen dut. <input type="checkbox"/> ...	<input type="checkbox"/> Nor den begiratu eta orduan erabakitzen dut hartu ala ez. <input type="checkbox"/> Beti hartzen dut. <input type="checkbox"/> Telefonoa ezaguna bada hartzen dut; bestela, ez. <input type="checkbox"/> ...



Zuen taldean atera diren ondorioak talde handian azaldu. Antzera jokatzeko denok? Laburbildu ondorio nagusienak 3-4 esalditan.



Argazkia: Pixabay



*Adibidez:*

1. Une desegokia bada, gutako gehienok ez dugu telefonorik hartzen.

2. ....

3. ....

4. ....

5. ....

6. ....

# ERANTZUNAK

## 2. Adi entzungaiari

### 1- Zergatik deitzen diote “mutuen belaunaldia” gaztetxoek taldeari?

Nahiago dutelako deiak eta mezuak idatziz erantzun, ahoz erantzun baino.

### 2- Zergatik ez dute gustuko Milennialek telefono deiak jasotzea?

Gogorra/Dererosoa egiten zaielako norbaitek deitzea. Horretaz gain, gazte gehienek denbora asko kentzen diela uste dute.

### 3- Zer dio Enric Soler irakasleak gazteen telefono-ohiturei buruz?

Gazteek nahiago dituztela komunikatzeko plataforma asinkronikoak, denboran bat egin beharrik ez dutenak. Bere iritziz, errazagoa eta erosoagoa zaie horrela aritzea.

### 4- Onintza Enbeitaren iritziz, nola jokutzen dute bere ingurukoek deitzen dietenean?

Onintza Enbeitaren ustez, bere ingurukoek deiak erantzuten dituzte, eta ez dira aitzakia bila/justifikatzen ibili ohi.

### 5- Zergatik du gogoko whatsapp Arantxa Urretabizkaiak?

Whatsappa ez delako inbaditzailea, eta ez delako hain kontrolatua sentitzen.

### 6- Zer dela eta sentitzen du antsietatea zenbait gaztek telefono dei bat egin aurretik?

Esandako hitzez erabat jabe sentitzen ez direlako. Horregatik, nahiago izaten dute grabatutako ahots-mezuak bidali.

## HIZTEGI LAGUNGARRIA

**Zerbaitetaz jabetuta egon:** zerbaitetaz konturatu.

**Deiek enbarazu egin:** deiek traba egin.

**Estaldurarik gabeko lekuan egon:** seinalerik iristen ez den lekuan egon.

**Fin-fin erantzun:** hutsik egin gabe erantzun, beti erantzun.

**Kontu bat azaleratu du azterketak:** zerbait agerian jarri du azterketak, zerbait bistarazi du.

**Hitz egiteko premia izan:** hitz egiteko beharra izan.

**Hitzen jabe sentitu erabat:** esaten dena kontrolpean izan erabat.

# TRANSKRIPZIOA

**Nagore Telleria, esataria.** Kaixo, egun on. Ari gara deitu eta deitu (Deitu eta deitu ari gara), baina alferrik, ordea.

Zuek ere igual jabetuta egongo zarete, deitu eta erantzunik ez. Idatziz gero, ordea, orduan bai. Gertatzen ari da. Gazteen artean erabat egin dute komunikazio eskribiturako trantsizioa, ez diote alferrik deitu "mutuen belaunaldia". 1981 eta 1996 urte artean jaiotakoei egin diete galdera, Estatu Batuetako 1200 gazteri. "Millennialek", hau da, 25 eta 40 urte artean dituztenek diote telefono deiek enbarazu egiten diela egunerokoan. Biolentoa egiten zaie norbaitek deitzea, eta, gainera, denbora asko kentzen die. %75ek dute iritzi hori. Kataluniako Universitat Obertako Psikologiako Hezkuntza Zientzietako departamenduak ere hartu du parte lan honetan, eta Enric Soler irakasleak dio gazteek komunikatzeko plataforma asinkronikoak nahiago dituztela, denboran bat egin beharrik ez dutenak, errazagoa zaielako, erosoagoa eta ez hain intrusiboa. Eta esaten du gazteagoek, Z belaunaldikoek ere, 16 eta 24 urte artean dituztenek, hartu-emanetarako whatsapp edo sare sozialak nahiago dituztela, telefono deien aldean.

**Nagore Telleria, esataria.** Onintza Enbeitia, kaixo. Egun on.

**Onintza Enbeitia, kolaboratzailea.** Egun on.

**Nagore Telleria, esataria.** Zer moduz, ondo?

**Onintza Enbeitia, kolaboratzailea.** Bai, oso ondo.

**Nagore Telleria, esataria.** Zuri askotan tokatzen al zaizu, gero eta gehiagotan, "ez dut entzun", "isilduta neukan", "estaldurik (estalduririk) gabeko lekuan nengoen", eta halakoak entzutea?

**Onintza Enbeitia, kolaboratzailea.** Ba (bada), entzutea ez, baina egia da ni telefonoa hartzeko nahiko desastrea naizela, eta, kontrakoa esaten badut, ba (bada), nire lagunak hasiko dira irratira deitzen. Ez dut uste holan (horrela) orokorrean jendeak bere burua asko, ez dakit, justifikatzen duen; edo bueno, normalean, nire irudipena da nire inguruan ere telefonoa erantzuten dela

**Nagore Telleria, esataria.** Arantxa Urretabizkaia, kaixo.

**Arantxa Urretabizkaia, kolaboratzailea.** Kaixo, egun on.

**Nagore Telleria, esataria.** Arantxak fin-fin erantzuten du, eta, momentu horretan ezin badu erantzun, segituan bueltatzen du deia.

**Arantxa Urretabizkaia, kolaboratzailea.** Bai, bainan (baina), agian, gazteagoek ikasi baldin badute sakelekoa (sakelakoa) ondo erabiltzen... Ze (zeren) nik ez det (dut) ondo ulertzen beti lokalizatua egon behar hori. Niri erakutsi zidaten telefonoa enkargoetarako zala (zela), ez berriketarako, eta, zentzu horretan, Whatsapp gehiago gustatzen zait niri, ze (zeren) Whatsapp ez da hain inbaditzailea.

**Nagore Telleria, esataria.** Bueno, beste kontu bat ere azalera du azterketa honek, eta dio gazteek ez dutela deirik erantzuten ez dakitelako zenbat denborarako deia izango den, eta, honenbestez, ez dakitelako zenbat denbora kenduko dien. Eta, ez hori bakarrik, pentsatzen dute deitzen duenak daukala hitz egiteko premia; ez, ordea, deia erantzun behar duenak, eta ez hartzeko ematen dituzten arrazoi gehiago: ekitaldiren batera joateko gonbita izango delako, eta, honenbestez, ba (bada), konpromisoan jarriko dituen dei bat izango delako. Hori dio %55ak. %49k mesederen bat eskatzeko nola izango den, hobe ez hartuta, eta %46k eztabaida ekar dezakeelako, eta aurrez aurreko hori saihesteko ez dutela telefonorik hartzen. Eta bada beste kontu bat gazteen segurtasun mailarekin lotura duena, zeren 10etik 8k onartu dute antsietatea sentitzen dutela norbait deitu aurretik. Iruditzen zaielako komunikatzeko modu tradizionala, telefonoz hitz egitea, arrisksuegia dela, ez direlako esandako hitzez erabat jabe sentitzen, hitzak ezin direlako altxa, eta, honen aurrean, nahiago dute grabatutako ahots-mezuak bidaltzea, ba (bada), seguruago.